

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ILE-APAINDEGIETAN ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIO ETA PRODUKZIO ESZENIKOETAN ILEAREN FORMA ALDATZEA	Iraupena	70
		Baldintzatua	
Kodea	UF0829		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa tekniko-artistikoa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Ile-apaindegietarako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetarako protokolo teknikoak eta orrazkerak	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ile-apaindegietako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetako lanen protokolo teknikoak	Iraupena	40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0794\_3 ILE-APAINDEGIETARAKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIO ETA PRODUKZIO ESZENIKOETARAKO PROTOKOLO TEKNIKOAK ETA ORRAZKERAK EGITEA gaitasun-ataleko LB2, LB5, LB6, LB7, LB8 eta LB9 lanbide-burutzapenekin, aldi baterako ile-aldaketak, ile bilduak eta ile-akaberak egiteari dagokionez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Profesionala prestatzeko eta babesteko eta bezeroaren arretarako behar diren elementu teknikoak edo elementu osagarriak aukeratzea, baldintza higieniko-sanitarioak bermatuz.

EI1.1 Ile-apainketa klasiko eta aurreratuko prozesuak egiteko behar diren guneak, bitartekoak, ekipoak eta kosmetikoak deskribatzea.

EI1.2 Higienarako, egokitzapenerako, forma- eta kolore-aldaketetarako kosmetikoak konposizioaren, forma kosmetikoaren eta ilean eragin ditzaketen efektuen arabera sailkatzea.

EI1.3 Profesionalak komunikazioan eta bezeroarenganako arretan jarraitu beharreko irudiari lotutako urratsak deskribatzea.

EI1.4 Ile-apainketako prozesuetan bezeroa kokatzeko eta babesteko kondizioak deskribatzea.

EI1.5 Produktuek erreakzio kaltegarriak eragitea saihesteko bezeroa babesteko kondizioak azaltzea.

EI1.6 Ilea prestatzeko formak deskribatzea, gero aztertzeke eta baloratzeke.

EI1.7 Egin daitezkeen tekniken eta orrazkera-estilo eta orrazkera bilduen estiloen arabera egiten diren ile-bereizketa eta -zatiketa motak azaltzea.

EI1.8 Orrazkerak egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Lortu nahi den emaitza lortzeko egokienak diren ilerako higiene- eta egokitzapen-kosmetikoak deskribatzea.
- Hainbat orrazkera-mota eta orrazkera bildu mota finkatzeko eta haiei akabera emateko erabili behar diren forma kosmetikoak eta aktibo kosmetikoak adieraztea.

EI1.9 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kolorea aldatzeko eta aldi baterako forma aldatzeko kasu praktikoetan:

- Oxidazio bidezko tinduak eman aurretik eta eman ondoren hartu behar diren neurri prebentiboak eta babes-neurriak deskribatzea.
- Forma-aldaketa iraunkorrerako kosmetikoak eman aurretik eta eman ondoren hartu behar diren neurri prebentiboak eta babes-neurriak deskribatzea.
- Kosmetikoak aukeratzea, eta haien printzipio aktiboak eta jarduera-mekanismoak deskribatzea.
- Kosmetikoak eman aurretik, haiek prestatzeko egin behar diren eragiketak egitea.

EI1.10 Profesionalak laneko teknikekin lotuta hartu behar dituen jarrera anatomiko egokienak azaltzea.

A2: Orrazkerak eta orrazkera bilduak teknika klasikoekin eta aurreratuekin egiteko oinarri gisa balioko duten aldi baterako forma-aldaketak aplikatzea.

EI2.1 Aldi baterako forma-aldaketen oinarri zientifikoak azaltzea, eta aldaketa haiek ile-zuntzean dituzten eraginak adieraztea.

EI2.2 Forma aldi baterako aldatzeko tekniken aukeraketan edo bazterketan eragiten duten faktoreak detektatzea.

EI2.3 Molde-mota desberdinak erabiliz egindako aldi baterako kizkurtzean lortzen diren emaitzak zehaztea.

EI2.4 Moldeak ordena eta norabide desberdinetan jarriz marrazkiak egitea, eta lortu nahi diren emaitzekin erlazionatzea.

EI2.5 Aldi baterako ile-aldaketen prozesuen faseak deskribatzea, fase bakoitzean egin beharreko eragiketa teknikoak eta esku hartzen duten ekipoak eta kosmetikoak adieraziz.

EI2.6 Aldi baterako forma-aldaketak egiteko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Orrazkera edo orrazkera bildua egiteko behar diren produktuak, tresnak eta osagarriak aukeratzea eta prestatzea.
- Bezeroa egoki kokatu dela eta bezeroa eta profesionala babesteko neurriak behar bezala aplikatu direla gainbegiratzea.
- Aldi baterako aldaketak egiteko ilearen higienarako egin behar diren eragiketa teknikoak gainbegiratzea.
- Produktu egokitzaila eta finkatzailea fabrikatzailearen gomendioei jarraituz ematea.

- Hainbat orrazkera-estilo abiapuntu gisa hartuta, haiek egiteko oinarri gisa balioko duten muntaketak egitea.
- Orrazkerari akabera emateko produktuak ematea.

A3: Orrazkerak eta orrazkera bilduak teknika klasikoekin eta aurreratuekin egiteko oinarri gisa balioko duten forma-aldaketa iraunkorrak egitean, zuzentze- eta gainbegiratze-teknikak aplikatzea.

EI3.1 Forma-aldaketa iraunkorren oinarri zientifikoak azaltzea, eta aldaketa haien ezaugarriak adieraztea.

EI3.2 Forma-aldaketa iraunkorrerako kosmetiko erreduktoreen aukeraketan eragiten duten faktoreak detektatzea.

EI3.3 Molde-mota desberdinak erabiliz eta moldeak sustriaierekiko desberdin kokatuz egindako kizkurtze iraunkorrean lortzen diren emaitzak zehaztea.

EI3.4 Moldeak ordena eta norabide desberdinetan jarriz marrazkiak egitea, eta lortu nahi diren emaitzekin erlazionatzea.

EI3.5 Ilean forma-aldaketa iraunkorrak egiteko prozesuaren faseak azaltzea, fase bakoitzean egin beharreko eragiketa teknikoak eta esku hartzen duten ekipoak eta kosmetikoak adieraziz.

EI3.6 Forma-aldaketa iraunkorrak egiteko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Produktuak aukeratzea eta, ile-motaren eta ilearen egoeraren arabera, indar eta dosimetria espezifikorekin prestatzea, eta moldeak ilearen luzeraren eta dentsitatearen arabera aukeratzea eta prestatzea.
- Forma-aldaketa iraunkorrak egitean bezeroa babesteko neurriak aplikatzen direla gainbegiratzea.
- Forma-aldaketa iraunkorra egin aurretik ilearen higienarako emateko xanpu egokia aukeratzea.
- Sekzioak aukeratutako muntaketaren arabera adieraztea.
- Kosmetiko erreduktorea modu homogeneoan, forma zuzena, zeharkakoa edo beste teknika batzuk erabiliz, ematen dela gainbegiratzea.
- Esposizio-denbora gainbegiratzea eta likido erreduktorea uretan nola kentzen den eta neutralizatzailea nola ematen den gainbegiratzea, kizkurra kontrolatzeko behar den jarduera-denbora kontrolatuz.

A4: Orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko teknikak lan tekniko desberdinak konbinatuz aplikatzea, bezeroaren, ikus-entzunezko bitartekoen, bitarteko eszenikoen eta publizitate-bitartekoen eskaeretara eta beharretara egokitzea.

EI4.1 Orrazkerak eta orrazkera bilduak egitean eragiten duten estilismoko, argiztapeneko, mugimenduko, ingurune eta espazio-denborako ezaugarriak deskribatzea, erakutsiko diren ingurune edo jarduera sozialen arabera.

EI4.2 Txirikordak/orrazkera okerrak, ile-kiribilak, kardatzeak eta beste teknika batzuk eta ile-eranskinak eta bestelakoak finkatzeko teknikak deskribatzea, kardatzearen uniformetasun-, kontrol- eta akabera-parametroak eta haiek egiteko behar den merkataritza-denbora kontuan hartuz.

EI4.3 Obalo-mota bakoitzean egin daitezkeen orrazkeren eta orrazkera bilduen eskema bat egitea, eta haien berezitasunak aztertzea estilo desberdinak erabiliz zuzentzeko.

EI4.4 Kolorea emateko, mozteko eta forma aldatzeko teknikak protokoloak orrazkera-estilo bakoitzera egokitzea, bezeroaren eta/edo ikus-entzunezko bitartekoen ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta.

EI4.5 Ile-apainketako teknika desberdinak konbinatuz —adibidez, kolorea, mozketa, aldi-baterako forma-aldaketa eta akaberak— orrazkerak egitea panpina eta modeloetan.

EI4.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, orrazkera bilduak egitea panpinetan, ile-eranskinak eta apaingarriak egokituz.

EI4.7 Historiako orrazkera bat ikus-entzunezko bitarteko bateko —esaterako, argazkia, bideoa eta zinema— modelo batean egiteko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Modeloaren eta lortu nahi den orrazkeraren arteko desberdintasunak adieraztea, luzerari, koloreari, bolumenari, testurei, simetriari, formei eta bestelakoei dagokienez.
- Orrazkera egitean eragina dutelako kontuan hartu beharreko ikus-entzunezko bitartekoaren ezaugarriak adieraztea.
- Modeloan egin beharreko aldaketak eta aplikatu beharreko teknikak adieraztea.
- Ile-protesiak —ile-eranskin, ileordeak eta/edo ile-luzapenak— jartzea beharrezkoa den ala ez zehaztea.
- Azken emaitza lortzeko egokienak diren kosmetikoak deskribatzea, eta teknika bakoitzarekin lotzea.
- Erabili behar diren osagarriak eta ezarkinak adieraztea.
- Kosmetikoek orrazkeren akaberetan eta finkatzean duten eragina deskribatzea.

EI4.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, haiek egitea:

- Ibiltokirako hainbat estilotako orrazkerak eta orrazkera bilduak, apaingarriak eta ile-eranskinak erabiliz.
- Argazki bidezko publizitate-iragarkietarako orrazkerak eta/edo orrazkera bilduak.
- Telebistako publizitate-iragarkietarako orrazkerak eta/edo orrazkera bilduak.
- Zinemarako orrazkera eta/edo orrazkera bilduak.
- Antzerkirako orrazkera eta/edo orrazkera bilduak.

A5: Ile-apaindegiko, ikus-entzunezko bitartekoetako eta produkzio eszenikoetako orrazkerak eta orrazkerak bilduak egiteko zerbitzuen kalitatea zehazten duten parametroak ebaluatzea.

EI5.1 Orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuetan zer alderdi ebaluatu behar diren identifikatzea zerbitzuaren kalitatea eta bezeroaren gogobetetze-maila zehazteko.

EI5.2 Lortutako emaitzetan aurreikusitako emaitzekiko gertatutako desbideratzeak detektatzea eta aztertzea.

EI5.3 Zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak, bezeroarenganako arreta pertsonalekoak eta bezeroarekiko komunikaziokoak zerrendatzea.

EI5.4 Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako desbideratzeak haiek gertatutako faseekin lotzea.

EI5.5 Zerbitzuko hutsuneak zuzentzeko eta emaitzak optimizatzen neurriak aplikatzea, etengabeko hobekuntzarako.

## Edukiak

### 1. Orrazkera, akabera eta orrazkera bilduetarako kosmetiko eta aparatu espezifikoak.

- Kosmetikoak:
  - Konposizioa, forma kosmetikoak eta jarduera-mekanismoak.
  - Hautatze-irizpideak eta jarraibideak, hauen arabera:
    - Ile-mota eta ilearen egoera.
    - Aplikatu beharreko teknika.
    - Orrazkeraren, akaberaren eta/edo orrazkera bilduaren iraupen-denbora.
    - Ingurune-kondizioak: kanpoaldea, platoa, beste batzuk.
    - Ekitaldi-motak: ezkontza, fantasia, inauteria, ibiltokia, beste batzuk.
  - Behar bezala prestatzeko, manipulatzeko, emateko eta kontserbatzeko jarraibideak.
- Aparatuak: bero lehorrekoak eta bero hezeak.
  - Hautatze-irizpideak.
  - Behar bezala prestatzeko, manipulatzeko, emateko eta kontserbatzeko jarraibideak.

### 2 Forma-aldaketa aldi baterakoak eta iraunkorrak, teknika klasikoekin eta aurreratuekin egiteko orrazkeren oinarriak sortzeko.

- Ilea: forma-aldaketa aldi baterakoak eta iraunkorrak egiteko teknikekin aldatzen diren egiturak.
- Aldi baterako forma-aldaketan oinarri zientifikoak.
- Forma-aldaketa iraunkorren oinarri zientifikoak.
- Forma-aldaketa aldi baterakoaren eta iraunkorren prozesuen protokoloak egokitzea.
- Aldi baterako forma-aldaketarako metodoak eta kosmetikoak.
- Forma-aldaketa iraunkorretarako metodoak eta kosmetikoak.
- Forma-aldaketa aldi baterakoetarako eta iraunkorretarako teknikaren aukeraketan eragiten duten faktoreak.
- Uhintze eta lisatze aldi baterakoetan eta iraunkorretan erabiltzen diren osagarriak, moldeak, lisaburdinak eta bestelakoak aukeratzea eta prestatzea.
- Aldi baterako forma-aldaketak egitea.
- Forma-aldaketa iraunkorreko prozesuak gainbegiratzea.
- Ilearn forma-aldaketak ekitaldi-motaren, eguraldiaren eta/edo produkzio-bitartekoaren eta/edo ikus-entzunezko bitartekoaren arabera zaintzea, mantentzea eta kontserbatzea.
- Kolore- eta forma-aldaketa iraunkorrak egiteko teknikak konbinatzean kontuan hartu beharrekoak.

### 3 Orrazkerak, akabera eta orrazkera bilduak teknika klasikoekin eta aurreratuekin.

- Orrazkerak, akabera eta orrazkera bilduak egiteko protokoloak egokitzea.
- Orrazkeraren historia: Egipto, Grezia, Erroma, garaia
- Aldi baterako forma-aldaketarako prozedurak.
- Orrazkeretarako oinarriko teknikak.
- Aldi baterako forma-aldaketak:
  - Ur bidezko moldekatzeak: ur bidezko uhinak eta eraztunak.
  - Molde bidezko forma-aldaketak.
  - Moldekatze termikoak: eskuko ile-lehorgailua, ile-kizkurgailuak eta lisaburdinak.
- Hauetarako estilo klasikoak eta berritzaileak: jarduera sozialak, ibiltokia, argazkigintzako eta/edo telebistako publizitate-iragarkiak, zinema eta antzerkia.
- Akabera-motak
- Orrazkeraren egokitzapenak:
  - Orrazkerarekin zahartzea eta gaztetzea
  - Telebistako programetarako, zinemarako, antzerkirako, modarako eta publizitaterako ukituak.
  - Apaingarriak, osagarriak, kapelak eta bestelakoak jartzea. Orrazkeraren ezaugarrietara, erakutsiko den egoeretara egokitzea.
- Orrazkera bilduak egiteko teknika-motak: ile-kiribilak, txirikordak, dantzari-mototsak eta bestelakoak.
- Orrazkerari lotutako teknikak: kolorea ematea, mozketa eta bestelakoak.
  - Teknikak konbinatzeko irizpideak.
  - Hainbat teknika konbinatzen direnean kontuan hartu beharrekoak.
- Modarako, publizitaterako, ikus-entzunezko bitartekoetarako eta bitarteko eszenikoetarako orrazkerak: ezaugarriak eta teknikak.

### 4 Ile-eranskinak, ileordeak eta ile-luzapenak.

- Ile-eranskinak, ileordeak eta ile-luzapenak aplikatzeko protokoloak egokitzea.
- Ile-eranskinak eta ileordeak:
  - Saillapena.
  - Lortu beharreko efektuen eta estiloen arabera aplikatzea, egokitzea eta orraztea.

- Erakutsiko den egoeraren, eguraldiaren eta/edo produkzio-bitartekoaren eta/edo ikus-entzunezko bitartekoaren kondizioen arabera zaintzea, mantentzea eta kontserbatzea.
- Luzapenak:
  - Ile naturalari lotzeko moduaren arabera sailkatzea luzapenak.
  - Luzapenak aplikatzeko eta kentzeko baliabide teknikoak eta produktuak.
  - Ile-luzapenak jartzeko teknikak: erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
  - Luzapenen aplikazioa ile-apainketa etnikoan.
  - Luzapenen zainketak.

#### 5 Ile-apainketa aurreratuko prozesuen segurtasuna, higiena eta kalitatea.

- Profesionala eta bezeroa babesteko neurriak.
- Aldi baterako forma-aldaketen prozesuetako neurri anatomikoak eta jarrera-higieneko neurriak.
- Higiena-, desinfekzio- eta esterilizazio-neurriak ile-apainketako prozesuei aplikatuta.
- Orrazkerak, akaberak, orrazkera bilduak egiteko eta luzapenak aplikatzeko prozesuen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Orrazkerak eta orrazkera bilduak teknika klasiko eta aurreratuekin eta ile-eranskinak, ileordeak, ile-luzapenak, burukoak, kapelak eta apaingarriak aplikatuz egiteko prozesuak ebaluatzeko eta haien kalitatea kontrolatzeko metodoak.
- Zerbitzu horien neurri zuzentzaileak proposatzeko jarraibideak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

UF0828 gainditua izan behar du: Ile-apaindegietako eta ikus-entzunezko produkzio eta produkzio eszenikoetako lanen protokolo teknikoak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketa tekniko-artistikoa